


# AUZOKIDEAK

aniztasunean eta bizikidetzan heziz.



Beato Tomás Zumárraga Dohatsua, 96-98 bajo/behea · 01009 VITORIA-GASTEIZ · Apartado de correos 2048  
Tfno/fax: 945 225516 · [eginez@euskalnet.net](mailto:eginez@euskalnet.net); [info@eginez.org](mailto:info@eginez.org)  
[www.eginez.org](http://www.eginez.org) · [www.ponteenmilugar.eu](http://www.ponteenmilugar.eu)

# ANIZTASUN FUNTZIONALA ahalmen-urritasuna haurrei azalduta

*Aitzol, Hugo eta Ekieder  
hiru neska-mutil dira, eta  
aniztasun funtzionala dute.  
Auzo berean bizi dira eta  
ikastolara joaten dira, zu  
bezalaxe. Baina, zorientasuna  
galtzeko arriskuan daude.  
Aitzolek, Hugok eta  
Ekiederrek haien abenturen berri  
emango digute. Hirurek amets  
bera dute: herri bat sortu nahi  
dute, baina ez edozein herri;  
herri horretan haurrei entzun  
egingo diete, eta haien iritzia  
kontuan hartuko dituzte. Istorio  
hau lagungarria da aniztasun  
funtzionala zer den ulertzeko,  
bai eta berdintasuna eta  
adiskidetasuna sustatzeko ere.*



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala





## HUGO *dut izena*



12 urte ditut eta txikitatik gurpil-aulkia erabiltzen dut. Bidaiak egitea atsegin dut; munduan zehar bidaiatu nahiko nuke. Amak esaten dit mundua arriskuz beteta dagoela, baina niri ez zait hori iruditzen. Nik abentura atsegin dut. Alaitasunez egiten diet aurre arazoei. Gurpil-aulkia erabiltzeak ez du esan nahi nire ametsak beteko ez ditudanik. Denok gara bakarrak eta bereziak. Lagunek naizen bezala maite naute. Ziur naiz hemendik urte batzuetara espaziora bidaiara egingo dudala. Amore ematen ez badugu, edozer lor dezakegu.



## AITZOL *dut izena*



eta oso atsegin dut irakurtzea. Idazlea izan nahi dut eta Nobel saria irabazi. Eskolan oso nota onak ateratzen ditut, eta, nahiz eta batzuek ikastun esaten didaten, ez dut uste besteak baino azkarragoa naizenik. Udan, neska bat begiz jo nuen, baina haren lagunek esaten zidaten ez zela nitaz interesatuko, ibiltzeko makuluak behar ditudalako. Oso gozoa zelako atsegin nuen neska hori. Ez dut uste kanpoko itxurari soilik erreparatuko zionik. Nik konfiantza dut neure buruarengan. Nahiz eta batzuetan triste-itxura izan, gehien atsegin dudana adiskideekin ondo pasatzea da.



## Ni EKIEDER *naiz*



Zuhaitz batera igo naiz, eta horregatik, jendeak uste du pixka bat erotuta nagoela. Nik zuhaitza ez mozte nahi nuen. Jendeak uste du itsua izateagatik ezin naizela neure kabuz moldatu. Oker daude! Oso oker! Natura atsegin dut; zuhaitzak maite ditut. Iruditzen zait bizirik daudela eta sufritu egiten dutela gaizki tratatzen dituztenean eta besterik gabe mozten dituztenean. Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute; esate baterako: oxigenoa. Trukean, ordea, oso gutxi eskatzen digute; bizitzen uzteko eskatzen digute, besterik ez. Nire ametsa munduan natura errespetatzea da, izaki bizidun guztiok Ama Lurrarekin harmonian bizi gaitzen.

## Bada, nik EKAITZ



dut izena, eta nire ustez, balio duenak balio du, eta balio ez duenak, hor konpon. Oso indartsua naiz eta inork ez nau zirikatzen. Zerbait berezia daukat; ez dakit zer den zehazki. Aitak esaten du maite gaituztenek mintzen gaituztela, ez mindu nahi gaituztenek. Atsegin dut besteek nik esandakoa egitea, eta, haserretzen badira, bada, hor konpon. Ni neure zortzikoan ibiltzen naiz. Esnatu daitezela besteak!



## AMAIA



Txikia nintzenetik, beti atsegin izan dut dantzatzea. Dantzako eskolak hartzen ditut eta, nahiz eta batzuetan gogorra izan, oso ondo pasatzen dut. AMAIA dut izena. Aniztasun funtzionala duten lagunak ditut; besteak bezalakoak dira: beldur berberak dituzte eta barruan altxor berberak gordetzen dituzte. Are gehiago, batzuk altxor hutsa dira. Oso atsegin ditut, batez ere, oso lagun onak direlako. Haiekin nagoenean, oso ondo pasatzen dut. Besteek arraroztat hartzen dituztenean soilik haserretzen dira.

## LISETTE



Beldur naiz iseka egingo ote didaten. Ez dut nahi inork esatea: beltz potolo hori! Lisette dut izena, eta, txikia nintzenean, inoiz ez zidaten printzesaren papera eman. "Txokolate ikatz beltz" esaten zidaten. Mendeku hartzeko, dantzan egiten nuen; izan ere, eskolako dantzari onena nintzen. Zergatik lotsatu behar naiz nire larruazalaren koloreaz? Nire larruazalaren kolorea oso ederra da. Besteek hori ikustea nahiko nuke.

## Zer esan nahi du aniztasuna izateak?

Aniztasuna izatea desberdina izatea da, gauzak beste modu batera egitea. Agian ezin duzu ikusi, entzun edo lasterka egin, baina zentzumenak beste era batera erabiltzen ikasi duzu. Hori ez ezik, gauza oso zailak egiten ere ikasi duzu, eta horregatik, zinez aparta zara!

Esate baterako, EKIEDERREK ezin du begiekin ikusi; dena den, entzumena eta ukimena erabil-

tzen ditu bere bidea egiteko eta mundua ezagutzeko.

Ondo pentsatuz gero, milaka gauza egin ditzakezu: jolastu, barre egin, ikasi, amestu, istorioak asmatu, txisteak kontatu, izarrak zenbatu, egunero-egunero pixka bat hazi... Gutxi dira egin ezin dituzun gauzak edo beste modu batera egin ezin dituzunak. Gainera, nork egin dezake dena?



## Zer egin dezakegu aniztasuna badugu?

**la dena! Agian, gauza gu-txi batzuk ezingo dituzu inoiz egin, baina** nork egin ditzake hainbat kilometro lasterka nekatu gabe? Ezin ditugu gauza guztiak egin, baina ez dio axola; izan ere, milaka sentsazio ditugu.

Haur guztiok gauza berberak nahi ditugu; hau da, ondo pasatu, jolastu, ikasi eta maitatu nahi dugu, bai eta gu maitatzea ere. Gauza horiek beste ezer baino garrantzitsuagoak dira.

Ahalegina egiten badugu, egun batean, helduak garenean, nahi duguna izango gara.

## Arreta berezia behar al dugu haurrok?

Konturatu al zara nola babesten dituzten txoriek txorikumeak habiatik eror ez daitezen? Nola gordetzen dituzten kanguru amek kanguru jaioberriak sabeleko poltsan? Nola irakasten dieten urtxintzek kumeei ur-oskolak puskatzen? Nola irakasten dieten zaldiek zaldikoei ibiltzen?

Haurrek ere arreta behar dute hazteko.

Konturatu al zarete ikasgelako aukiak eta mahaiak andereñoarenak baino txikiagoak direla? Harenak askoz handiagoak dira. Ura edateko erabiltzen

dugun iturria eta konketak gure garaieraren arabera eginda daude, eta ikasteko erabiltzen ditugun liburuak gure adineko haurrentzat daude eginda.

Beste herrialde batetik etorri bazara eta hemengo hizkuntza ez badakizu, hizkuntza ikasten lagunduko dizute, eskolan ulertzeko zailtasunik izan ez dezazun. Matematikekin erdipurdi bazabiltza, andereñoak lagundu egingo dizu.

Ikusten? Ezinbestekoa da gutako bakoitza modu berezian hezte eta tratatzea, eta gure beharrak aintzatestea.



## Zer-nolako arreta jasotzen dugu aniztasuna dugun haurrok?



Ikaskideen antzera, aniztasuna duten haurrek eskubidea dute haien beharretara egokitutako laguntza jasotzeko. Esate baterako, ondo ikusten ez baduzu edo itsua bazara, puntu txikiak dituzten liburuak erabil ditzakezu behatz-mamiekin irakurtzeko. Braille-sistema esaten zaio sistema horri. Ondo entzuten ez baduzu, eskuen bidez azalduko dizkizute gauzak, hots, zeinu-mintzairaren bidez, edo ezpainak irakurtzen irakatsiko dizute. Gurpil-aulkia erabiltzen baduzu, eskolako autobusa espaloirantz makurtuko da erraz irten zaitezten.

Horrez gainera, ikasgelako atea handia izango da, sartze-ko eta irteteko arazorik izan ez dezazun.

DISEINU UNIBERTSAL deritzo horri: hau da, dena denok erabiltzeko moduan diseinatzea eta eraikitzea.

Eskolan, ezinbestekoa da haur bakoitza modu jakin batean tratatzea; izan ere, denok gara ezberdinak.

Haurrok eskubidea dugu gure beharretara egokitzen den hezkuntza jasotzeko. Hezkuntzak hazten lagundu behar digu, bai eta gure ametsak betetzen ere.



## Nolakoak dira ikastola irigarriak?

Ikastola irigarriek kontuan hartzen dute gutako bakoitzak behar ezberdinak dituela. Ikastola horietan, argiak daude ateetan, jolas-garaia iritsi dela ohartarazteko. Braillean idatzitako liburuak, mapak eta marrazkiak dituzte, ikusi ezin duten haurrentzat. Kolore biziko atea dituzte, besteak beste, liburutegia eta sukaldea bereizteko.

Ikastola horietan, arrapalak daude, bai eta ate zabalak ere, gurpil-aulkia aise pasatzeko. Irakasleek entzun eta irakatsi egiten dute. Zentzuz eraikitako ikastolak dira, ikastola atseginak, denontzako ikastolak.



## Nola jolasten gara aniztasuna dugun haurrok?

Beste haur guztiak bezalaxe!

Besteek bezala tratatzea nahi dugu! Hugo saskibaloian jolasten da gurpil-aulkiarekin, eta domina bat eskuratu du. Ekieder futboleant jolasten da. Eskolan, kaskabuloak dituzten baloia ditugu, eta Ekieder da neskarik azkarrenetakoa. Nik lasterketak egitea atsegin dut...

Haur guztiok gauza berberak nahi ditugu. Bereizten gaituena ez da behar ditugun gauzak, baizik eta gauzak egiteko erabiltzen ditugun bitartekoak.



## Aldatzen al gara bizitzan zehar?

Andereñoak esaten digu ez garela beti berdinak. Esate baterako, haurtxoak garenean, besoetan eramaten gaituzte, gero, lau hankan ibiltzen gara... Amatxo haurdun dagoenean, nekatuago sentitzen da, eta aita baino motelago ibiltzen da haurtxoaren orgarekin ibiltzen denean. Hanka bat hautsi eta igeltsatzen dizutenean, ez zara ohi bezala ibiltzen. Bizitzan zehar, gure egoera aldatu egiten da; horregatik, beharrezkoa da etxeak, espaloiak, eraikinak, autobusak, metroa eta abar denek erabiltzeko moduan egokituta egotea.

Andereñoak haxe galdetu digu: - Ez al da zaila eskailera pila bat igotzea erosketara orga bat daramagunean? Edo makila behar dugunean ibiltzeko? Edo hanka hausten dugunean edo ezin dugunean ondo ikusi?

Kontua da andereñoak gaztetan atletismo-lasterketak egiten zituela. Orain makila bat erabiltzen du ibiltzeko. Horregatik, ikasgelara igotzeko eskailera erabili beharrean, Hurgorekin igotzen da ikastolako igogailuan. Ikasgelara iristen denean, haxe esaten du: -Tira, azkenean iritsi gara!



# HONA HEMEN JARDUERA BATZUK



Idatzi zerrenda batean zer oztopo dituzten mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak hirian eta herrian. Esate baterako, espaloi-izkinak oztopo dira gurpil-aulkiarekin, erosketarekin edo haurren-tzako orgarekin doazenentzat; edo soinurik egiten ez duten semaforoak oztopo dira ikusi ezin dutenentzat. Idatzi ikaskideekin batera gutun bat herriko edo hiriko alkateari.

Jolastu kaskabuloak dituen baloi batekin begiak itxita.

Idatzi gutun sekretu bat ikasgelako norbaiti. Esan zergatik den berezia.

Ikasi zeinu-mintzaira. Ikusiko duzu zeinen dibertigarria den eskuarekin hitz egitea! Eta are garrantzi-

tsuagoa dena, komunikatzeko beste modu bat ikasiko duzu.

Idatzi zerrenda batean zenbat gauza egiteko gai zaren. Zenbat gauza idatzi dituzu? Zerrenda luze-luzea da, ezta? Izan ere, oso-oso berezia zara!

Eskatu lagunei handitan zer izan nahi duten marrazteko paper batean. Gorde marrazkiak leku sekretu batean. Nahi duzuna izango zara!

Ukitu hatz-mamiekin braillean idatzitako testu bat.